hondo-hondotik

Iñigo Urkullu

(EAJko BBBko lehendakaria)

ETA gorabehera

Madrilek, edo behintzat Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak, ez dute ezta borondate politikorik txikiena ere agertu euskal gizarteak dituen arazo larriak konpontzeko. Guk geuk azken urteotan ikusi ahal izan dugu Estatuko bi alderdi nagusiek zein ekarpen kaskarra egin duten eta zein gutxi saiatu diren euskal gizartearen elkarbizitza-arazoei irtenbideak bilatzen. Eta uste dugu, gainera, jarrera horrek badituela bere azalpena eta bere arrazoia, askotan aipatu izan badira ere, antza denez, oraindik indar betean segitzen dutenak. Euskadin gertatzen ari dena, Estatuarentzat edo euren burua Estatutzat daukaten alderdientzat, lehenetsi eta iraunarazi beharreko egoera da, batez ere hauteskundeei begira.

Baina arazo politikoa ere hortxe dago. Joan den maiatzaren 13an Euskadin erreferenduma egin zen; erreferenduma izan zen, izan ere, horrelaxe aurkeztu nahi izan zutelako Espainiako Estatuko aginteek eta Estatuko bi alderdi politiko nagusiek. Erreferendumak argi eta garbi erakutsi du zein den euskal gizartearen zati baten —zatirik handienaren— iritzia: Euskadin badugula arazo politikoa, elkarbizitzaren eta bakearen arazoez gainera, eta arazo politiko hori konpondu beharra dagoela.

Euskal Herritarrok taldearen iritziz —lehen HB eta orain Batasuna—, ezin zaio indarkeriaren arazoari heldu aldez aurretik autodeterminazioaren arazoari heldu gabe. Eta Estatuaren iritziz —PP eta PSOEk ordezkatzen dute—, ezin da autodeterminaziorik aipatu aldez aurretik indarkeriaren arazoa konpondu gabe. Xantaia horren erdian ehunka mila euskal herritar gaude harrapatuta; konponbidea nahi dugun, eskatzen dugun eta behar dugun euskaldunok, hain zuzen ere.

Ez dirudi, beraz, inor prest dagoenik euskaldunoi laguntzarik txikiena ere emateko egoera konponbidean jartzen. Gero eta garbiago ageri da euskaldunok garela irtenbidea aurkitu nahi dugun bakarrak. Korapilatsuagoa eta zailagoa izango da, baina ez EH, ez ETA ezta Estatua ere ez daude gertu horretarako. Hala ere, badugu nondik jo. Badugu maiatzaren 13an ireki den eremu sozial eta politiko zabal hori. Bakearen lorpena eta indarkeriaren amaiera helburu nagusiak direla bai, baina aldi berean arazo politikoa mahai gainean jarri behar dela uste duten euskal herritarrak 604.000 dira.

BIDEA

Badugu eremu sozial eta politiko zabal bat bakea helburu nagusia dela eta arazo politikoa mahai gainean jarri behar dela uste duena

ETAk ezingo du gerarazi Euskal Herriko osasun arloaren garapena, gure gizarte sistemaren eta gure hezkuntzaren aurrerabidea, gure hazkunde ekonomiko eta teknologikoaren abiada. ETAk ez ditu kolokan jarriko gure gazteriaren eta gure gizartearen balio gizazale, etiko eta kultural sendoak. Euskaldunok ez dugu balio horietatik bat bera ere bertan behera utziko, ETA tartean egon zein ez egon. Horrexegatik, ETA hor egoteak ez digu galaraziko Euskadin arazo politiko nabarmen-nabarmena dugula aldarrikatzea ere. Madrilen oso kontuan eduki behar dute guk ez dugula ETAren aitzakia onartuko.

Maiatzaren 13an sortu zen eremu politiko, sozial eta kultural handia zabaltzeko erronka dugu aurrean. Eta prest gaude lanari ekiteko, nahi duten alderdi guztiekin batera.

Ainhoa Ozaeta

(Batasuneko Gipuzkoako koordinatzailea)

PNV, zein da zure aukera?

Azkenaldian Euskal Herrian bizitzea tokatzen ari zaigun egoeraren aurrean hausnarketarako geldiune bat egitea tokatzen zaigu ezinbestean. PNVtik ezker abertzalera bideratzen ari diren salaketa eta irainak entzun ondorean, eta egunerokotasunean herrialde honetan Batasunako kideeengan duten jarrera kontuan izanik aspaldian kalean dabilen galdera xume baina sakon bat egitera behartzen gaitu: PNV, nora zoaz?

Autogobernuaren izenean, Gernikako Estatutua helburu eta tresna bakartzat hartuta, soilik Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian kokatzen du PNVk bere joko zelai politikoa. Madriletik bere garaian herri honen askatasun egarria itotzeko eta zatitzeko, «hau ala ezer ez» premisapean inposatu zen markoa bihurtu da gaur egun PNVren helburu politikoa eta beste eskenatoki batera jauzia egiteko ausardia falta nabarmena du. Euskal Herriaren zati baten kudeaketan kokatzen du lehentasun nagusia eta gainontzekoa bigarren maila batean geratzen da.

Elkarrizketari bai esaten duen bakoitzean guztiekin hitz egiteko beharra aldarrikatzen du, baina elkarrizketa edukiz janztean berriz ere joko-zelai mugatuaren aurrean kokatzen du bere burua. Elkarrizketa bai, baina zertarako? Zein da Euskal Herriari frantziar eta espainiar estatuek ukatzen dizkioten eskubideak gauzatu ahal izateko PNVk elkarrizketaren bidez jorratu nahi duen bidea? Elkarrizketa, norekin? Zein mailatan? Elkarrizketa hotsak hitzez darabilen bitartean zein da egunerokotasunean garatzen duen praktika. Roman Sudupek Gipuzkoako Foru Aldundian daraman bidea adibidez? Batasunari proposamenak egiteko aukerak ere mugatzen dizkion bitartean, azpitik PSOErekin eta PPrekin akordio tazituak gauzatuz? Eta, bitartean Ibarretxe, Imaz edo Juaristi bezalako kideeek, ezker abertzaleko kideak kriminalizatu eta iraindu egiten dituzte, horrek dituen ondorio larrrien jakituen izanik ere.

Inoiz baino garbiago dago gaur egun herri honetan kontrajarriak diren bi proiektu politiko daudela: Euskal Herriak nazio bezala dituen eskubideen aldeko proiektua, edota bestaldetik frantziar eta espainiar estatuetatik PP, PSOE, RPR eta PSFk ordezkatzen duten asimilazio frantziar eta espainiarrararen proiektua. Horien tartean ezer ere ez dagoelako adibide oso garbia, azken egun hauetan Zapatero PSOEko buruzagiak «Espainia, Una, Grande y Libre»aren alde egin dituen adierazpenak dira. PNVk urrats guztiak marko autonomikoa indartzeari begira ari da ematen, horretarako PSOEri aukera guztiak irekita mantentzen dizkion bitartean. «Espainiaren batasuna apurtzen duen ezerk ez du zilegitasunik eta erabakitzeko markoa espainia osoa» dela dio gaur egun PNVk jardun politikorako begia botea dion alderdiak. Nora iritsi nahi du PNVko bide horretatik?

Euskal Herriaren eskubideen defentsa eta errespetuaren egiteko gure atea beti irekita dagoela badaki PNVk; transizio proposamen bat ere badu mahaiaren gainean, ezker abertzaleak eskubideen eta herriaren eraikuntzan indarrak metatzeko abiapuntutzat jarria, baina oraingoz, ahalik eta toki gehienetan gobernagarritasuna izatearen interes politikoa dela medio, nahiago du beste alde batera begiratu. Eta beste aldera begiratze horrek herri honek frantziar eta espainiar estatuekin duen gatazka luzatzeko emaniko pauso bat da, irtenbidearen bidetik emanikoa izan ordez.

hirusta



Koldo Almandoz

Extintorea vs bala

Idatziko ez ditudan zutabeei eskaini nahi nien hirusta hau. Karpeta batean gordetzen joan naizen albiste eta paper pusketetan idatzitako ideia solteak zutabe bihurtu nahi nituen. Baina ez dut idatziko. Eta errua Carlos Giulianik du.

Globalizazioaren aurka borrokan hiltzea borroka galdu batean bizitza galtzea da. Eta utopia baten alde hiltzen denak badu martiri izateko eskubidea. Baina gaur egun, nork izan nahi du martiri? Kamiseta irudia bihurtzeak, nire aburuz behintzat, prezio altuegia du. Kasu honetan, gainera, «antiglobalizazioa» amets bat besterik ez denean, atzo, gaur eta bihar existituko direlako txiro eta aberatsak, agintari eta aginduak, eder eta itsusiak eta zanpatzaile eta zanpatuak. Antiglobalizazioa, etikoki, munduko gauzarik kristauena da. Bakoitzak bere erara moldatu dezakeen utopia makiabelikoa. Eta guztioi gustatzen zaigu utopiatan sinisten jarraitzen dugula pentsatzea. Eta estetikoki ere badu interesik. Intelektual, kultureta eta artistilla ugariek behar izaten dutelako tarteka kausa galdu berri bati eustea. Antiglobalizatzaileek ere kontsumitzen dutelako, eta merkatuak badaki horretaz baliatzen.

Niri, hala ere, globalizazioaren kontu honek baino gehiago, Carlo Giuliani eta buruan tiro egin zion poliziarenak erakartzen nau. David Trueba zine zuzendari eta idazleak kontatu zuen pasarte bat gogorarazten dit. Los Angeles hirian, lagun txikano baten etxean afaltzen ari zirela, Estatu Batuetan dagoen arma kopuruaz eta arma horiek eragiten dituzten hilketez eztabaidatzen hasi omen ziren. Truebak, jakina, ezkertiar eta progre ororen moduan, armen legalizazioa astakeriatzat jotzen zuen, bere lagun txikanoak isilik entzuten zion bitartean. Truebak bere txapa eta estatistikekin amaitu zuenean, txikanoak zera galdetu zion:

– Eta zure herrian ez da horrelakorik gertatzen?

– Ez –erantzun zion Truebak.

– Ba nik, ez nuke bizi nahi armak Poliziak soilik erabili ditzakeen herrialde batean...